

getxoBerri

Getxo
bizi ezazu

f t #GetxoBiziEzazu


Doako alea

1523 Zb.
www.getxo.eus

Azaroak 22
>>Abenduak 2

2018

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ



NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

/ Nabarmenezkoak

- > Udalak edukiontzia aldatuko ditu, pertsona guztientzat irisgarriagoak izan daitezzen (2. or.)
- > Txapa jantzi eta bete rola 11 egunez Euskaraldian (3. or.)
- > Hainbat kontzertu solidario Fair Saturday-n (4. or.)

ALBE

ALBEk jasoko du "Argia Ereiten" Euskara Saria azaroaren 28an RKE (3. or.)

Algortako
Bertsolari
Eskola

Erakusketa. Azaroaren 28tik abenduaren 15era arte, Algortako Kultur Etxean, "Soy una valla" (Juan Gallegoren izen bereko komikiari buruzko erakusketa).

A-
GENDA

Poesia eta musika ikuskizuna. Azaroak 30, ostirala, 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Con Machado ... verso a verso", Poetaliaren eskutik. Sarrera dohainik.



Sarbide zuzena izango dute Jesusen Bihotza Udal Zahar-egoitzako erabiltzaileek

Bi igogailu eraikitze lanak esleitu dira, Aiboako metro geltokia Neguri-Algortako goialdearekin lotzeko

Udal Gobernu Batzordeak bi igogailu berri eraikitze lanak esleitu ditu, Aiboako metro geltokia eta Neguri-Algortako goialdea ("Jesusen Bihotza" Udal Zaharren egoitza eta Miguel Beascoa eta Konporte kaleak) lotzeko. Proiektuak 1.036.942€-ko aurrekontua du (zeinetatik 900.000 euro 2018ko partaidetza bidezko aurrekontuetatik atera diren). Lanak gauzatzeko epea sei hilabetekoa da, uste da gabon jaien ondoren hasi eta datorren urteko uda aldera amaituko direla. Igogailuak bertikalak izango dira, panoramikoak, eta kristalezko kabina edukiko dute; 16 lagunentzako tokiak izango dute eta 05:45etik 24:00etara ibiliko dira.

Jarduketa hau hiritar getxotarrek egingako ekarpen eta eskarien emaitza da, bereziki Jesusen Bihotza Udal Zaharren egoitzako erabiltzaileenak, zeinek dagoeneko partekatu den proiektuak; horiei, eguneroko bizitzan oinarritutakoak diren zerbitzuetara, kasuak kasu metro-ra, iristea erraztuko zaie; FEKOORen (Gutxitasun Fisikoa edo/eta organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzailea) eskaerak ere asebeteko dira, baita Aiboan eta Negurin bizi diren auzotarrenak. 2010eko maiatzean Txakursolo eta Makaleta Etorbidea Aiboako metroarekin lotzen dituenari jarraipena emango diote igogailu berriek.

Proiektuaren arabera, bi igogailu eraikiko dira, 24 metroko aldea gainditzeko: lehenengoa, Aiboako geltokitik aterako da (geltokiko sarbidearen paretik, egungo tunela amaitzen den tokian) eta bi geraleku izango ditu: bat trenbide ondotik paraleloan doan espaloia-aren mailan, eta bestea gorago, sortuko den oinezkoentzako ibilbide berri baten parean, bigarren igogailura eramango duena. Bigarren ekipamendu hori Miguel Beascoa kaleraino igoko da, eta Jesusen Bihotza Zahar-egoitzarako sarbidea edukiko du.

Hortaz, bi igogailuen erdian geraleku bat izango da, sortuko den oinezkoen-

tzako ibilbide berri, Marqués del Real Socorro eta Arkotxa kaleetan egun dauden ibilbideei segida emango diena, egungo plazaren bitartez. Bide berriaren amaieran oinezkoen pasabide bat hasiko da, Ormetxerekin lotuko dena.

Jarduketak ez du ukitutako baso-eremua; lanek erasan zitzaizkaten zuhaitzak aldatu egingo dira eta zuhaitz berriak landatuko dira.

Ekipamendu berri hauei esker, urrats berri bat egingo da aurrera, Aiboan-Alango-Arene esparru publikoa egokitzeko Plan integrala gauzatzeko bidean; ondorioz, aisialdirako, paseatzeko eta egoteko parke handi bat sortuko da.



Hutsik zeuden 85 aulkik gogoratu zituzten estatuan aurten erahildako emakumeak

100 pertsonak, horien artean Imanol Landa alkateak eta udal ordezkariak, parte hartu zuten astelehenean, azaroaren 25ean, ospatzen den Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Udalak antolatutako indarkeria matxistaren biktimen aldeko ekintzan, salaketa publikokoa, oroimenekoa eta lehengoratzeko bideratzekoa. Hutsik eta izen-abizenekin egon ziren 85 aulkik aurten estatuan

erahildako emakume eta haurrak ikusarazi zituzten; baita arrazoi desberdinengatik salaketa ez jartzea edo jasaten ari diren indarkeriaren berri ez ematea erabakitzen duten emakumeak ere, eta bestalde, nabarmendu zen biktimen lehengoratzeko lortzeko derrigorrezkoa dela lehenengo eta behin emakumei ahotza ematea. 2003tik hona estatuan erahildako emakumeak 971 izan dira.



AZAROAK 22 OSTEGUNA

Odol-ematea. Areetako Geltokia plazan. Goiz eta arratsalde.

Getxo zuzenean. Areetako El Comercio tabernan, 20:00etan, Biniolo's (swing-rocka).

AZAROAK 23 OSTIRALA

Zine kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Martin McDonagh-en "Tres anuncios en las afueras" filmaren proiektzioa eta fórum-a. 16 urteko gora-koentzat. Sarrera: 3,50€.

AZAROAK 24 LARUNBATA

Nazioarteko Trikitixa Jaialdia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan. Sarrera: 8€. Jarraian triki jaia Azebarri Kultur Elkartean (Euskalerría 14-16, Algorta), sarrera dohainik.

Fair Saturday. Ama Mesedeetako elizan, 20:00etan, elkartasun kontzertua. Ondarreta (Areetako) eta Biotz Alai (Algorta) abesbatzak, Sortarazi giza garapenerako elkartearen alde.

Fair Saturday. Algortako Hirutasun Guztiz Santuaren elizan (San Martin kalea 6), 20:15ean, Zozoak eta Irutasun abesbatzen kontzertu solidarioa, Vicente Ferrer Fundazioaren alde.

Ingurumen aretoa. 10:30etik aurrera helduenzako tailerrak: "Umeei osasuntsu eta gustura jateko errezetak", Txaramela Pastaren eskutik. Izena alde aurretik eman behar da. Informazioa: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

AZAROAK 25 IGANDEA

Ingurumen aretoa. Txikientzako tailerrak: "Egin itzazu zure dorkak hainbat materiala berrerabiliz". 6-14 urte bitartean. Informazioa: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

AZAROAK 26 ASTELEHENA

Zine tailerra. Algortako Kultur Etxean, 18:30ean, Richard Glazer eta Wash Westmoreland-en "Siempre Alice" pelikularen proiektzioa. Antolatzailea: ENClave Getxo.

AZAROAK 27 ASTEARTEA

Bakarriketa. Euskalerría. 19:30ean, Azebarri Kultur Elkartean (Euskalerría 14, Algorta), "Beldurrak" Xirrikuten jostunak konpainiarekin. Sarrera dohainik.

Osasun hitzaldia. Getxo Lagunkoia. 17:30ean, RKE, "Gripe y otras enfermedades catarrales". Udalak antolatuta, Areetako osasun zentroarekin elkarlanean.

AZAROAK 28 ASTEAZKENA

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, abenduaren 15era bitartean, "Soy una valla" (Juan Gallegoren izen bereko komikiari buruzko erakusketa).

Liburuaren aurkezpena. Candu Canoren "Vainica de mar y trigo" (poema-liburua). 19:00etan Algortako Kultur Etxean.

AZAROAK 29 OSTEGUNA

Getxo Live! 20:00etan, M.M.L. Malakateren (rock) emanaldia, Areetako La Zona tabernan.

AZAROAK 30 OSTIRALA

Poesia eta musika ikuskizuna. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Con Machado ... verso a verso", Poetaliaren eskutik. Sarrera dohainik.

ABENDUAK 1 LARUNBATA

Gabonetako kontzertua. 20:00etan, Tourseko San Martin parrokiaren (Algorta), Trio Piu Mosoren kontzertua (biolin, biola eta biolontxelo). Antolatzailea: Mugarbarik elkarte.

Ipuin kontaketa: Storytime. Romo Kultur Etxean, 11:00etan, Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik, "Saving Christmas". Ingelesez. Familia osoarentzat. Sarrera dohainik.

Dantza plazan. Algortako San Nikolas plazan, 19:00etan, euskal dantzak Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin.

Amateur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, Alanbikeren eskutik, "Sal marina". Sarrera: 3€.

ABENDUAK 2 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Harpetarra" ("Cavernícola"). Euskaraz. Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Mendi irteera. Montejurra mendilerroa. Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea. Informazioa: etorkizunamt@gmail.com eta 606 637 128 (Whatsapp).

orduka, edo bizitzen. Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzen, garbitzen...Tel.: 688 22 41 99.

- **Neska bat** lan bila dabil orduka, asteburuan edo etxean bizitzen. Pertsona nagusiak edo haurrak zaintzen, edo garbiketa egiten. Tel.: 631 19 78 48.

- **Neska bat** lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, garbitzen edo etxeko lanak egiten. Tel.: 646 64 86 61.



- **Lan egin nahi dut** etxe batean orduka edo bertan bizitzen, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Tel.: 602 57 26 76.

- **Lan bila** dabil neska bat etxean

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF
Getxoberri eGetxoko Udako Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-errotutako albisteak eta informazioak ageritzen dira astero.
Komunikazio zinegotzia: **Amaia Agirre**
Zuzendaria: **Javier Garcia**
Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**
Erredaktorea: **Nekane Ardanza**

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.
Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20.
48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: **Bostman Bilbao, S.L.**
Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.**
Banaketa: **Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua**
Gordailu legala: **BI-388-87**

Aurrekontu parte-hartzailetan boto gehien lortu dituen proposamena da Udalak edukiontzia aldatuko ditu, pertsona guztientzat irisgarriagoak izan daitezzen

Edukiontzien aldatzea, pertsona guztientzat irisgarriagoak izan daitezzen, izan zen proposamenik bozkatuena (7.081 puntu) 2019ko aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, hau da, azaroaren 11n bukatu zen fasean. Boto gehien lortu zituztenak hurrengo proposamenak izan ziren: lorategiak hobetzea eta gune berdeak handitzea (5.625), Algortan pertsona nagusientzat gune bat egokitzea (5.548), txakurren gorotzak kontrolatzea (5.318), plazak egokitzea: altzariak, zabuak, argiak... (5.289), bidego-

rrien sarea zabaltzea hiriguneak lotuz (5.084), Villamonteko eta San Nikolaseko liburutegiak hobetzea (4.523) eta Turismo- eta osasun-ibilbideetako seinaleak hobetzea (3.292). Proiektu horiek aurrera eramanean ahal izateko milioi bat euroko diru-partida erreserbatu dute, datorren urteko udal aurrekontuetan sartuko dena.

Aurrekontu parte-hartzailetan aurreikusitako milioi bat euroko diru-partida lehenengo lau proiektuen artean banatuko da: edukiontzien aldatzea hasiera (sistema zehazteke dago), lorategiak hobe-

tzea eta gune berdeak handitzea, Algortan pertsona nagusientzat gune bat egokitzea eta txakurren gorotzak kontrolatzea. Jasotako botoen kopurua 1315 izan zen (iaz baino 239 gehiago); haietatik, 1159 baliadunak eta 156 baliogabeak. 714 paperean aurkeztu ziren eta 601 online, web gunearen edo posta elektronikoen bitartez (2018an baino 118 gehiago). Prozesuaren parte-hartzaileen profilaria dagokionez, hirutik bi emakumeak izan ziren. Adinaren arabera, erdia baino gehiago 41 eta 65 urte bitartekoak ziren.

51.000€ko Euskal Fondoarentzat

Udalak Euskal Fondoari, euskal entitate kooperanteen elkarteari, 51.000€-ko diru-laguntza emango dio, Nikaraguako Tipitapa udalerriko Villa Solidaridad auzora heltzen den ura bildu nahi duen proiektu baterako (134.408€koa). Proiektuaren hobekuntza 6.890 pertsonentzat izatea aurreikusten da. Horietatik 3.521 emakumeak dira eta gainontzekoak gizonak. Helburuak dira haurren eta talde ahulen sabeleko eta arnasketa-gaixotasunen eraginak murrizteko laguntzea, herritarren eta eraikuntzetan euri-urak eragin ditzakeen kalteak prebenitzea, eta mugikortasuna hobetzea. Udala 2001ean sartu zen Euskal Fondoan eta orain arte sustatutako jardura gehienak aipatutako udalerriaren eraman dira aurrera. Getxo emandakoa, besteak beste, auzo batzuetan saneamendu azpiegiturak egokitzea eta liderei heziketa emateko izan da.

Herritartasun azterketak prestatzeko eskolak

Leioako Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Zentroan (Langilería kalea 106, Lamiako), Getxori dagokion egoitza nagusia, eskolak hasi dira ematen herritartasun espainiarra lortzeko azterketak prestatzeko. Herritartasuna eskuratzeko Cervantes Institutuak eta Hizkuntza Eskola Ofizialak (HEO) antolatutako proba bat gainditu behar da. Bi zati ditu proba horrek: gaztelania hizkuntza eta Espainiako Konstituzioaren eta espainiar errealitate sozial eta kulturalaren ezagutza.

Aipatutako zentroan uste dute hezkuntza publikoak erantzun bat eman behar diola prestakuntza behar horri. Horregatik, astero 1,5na orduko bi saio eskaintzen ditu proba hori prestatzeko. Ondoren, azterketa Deustuko Unibertsitatean eta HEOn egingo da. Argibide gehiago 94 480 61 10 telefonon.



"Bagara ala ez gara?" Getxora helduko da

Azaroaren 23tik 30era bitartean Algortako Telletxe kalera helduko da *Bagara ala ez gara?* Bizkaiko merkataritzaren aldeko foru-kanpaina. Kanpaina honen helburua da "herritarrei gogorazi nahi zaie tokiko merkataritzaren alde eginez, Bizkaian inbertitzen dela eta nabarmendu nahi da kalitatezko merkataritza profesionala dugula". Kanpaina, lurralde osoan denda ibiltarien bitartez zabalduko dena, Bizkaiko saltokiei buruzko eguneroko irudi eta istorio errealeak eskainiko dituzte eta kontsumitzaileak sentsibilizatu du tokiko dendak aukeratzeko duen garrantziaren inguruan.

150 lagunetik gora izan dira Zientzia Astean

150 lagun baino gehiagok parte hartu zuten Euskal Herriko Unibertsitateak antolatuta eta Punta Begoña Galerietan ospatutako Zientziaren Astean. Azaroaren 6tik 10era egin zen jarduna. Bisitak bete egin ziren, eta horietan hainbat talde izan ziren: erretirodunak, familiak haurrekin eta adin ezberdinetako ikasleak. Horiek, aukera izan zuten zientzia ikusi, entzun eta sentitu, eta gaiak hitz egiteko egunero zientzia lantzen dutenekin: Arte Ederretako, Geologia, Kimika, Historia eta Arkitektura Fakultateetako irakasle eta adituak, Punta Begoña lehengoratzeko egitasmoa gauzatzen ari direnak.



Hegaztiak behatzeko ekintza, Abran

Udal Ingurumen Arloak jardura bat antolatu du Abran hegaztiak begiratzeko, Areetako kaiko pasealekuan, La Bola hondartzaren ondoan. Jardura larunbat honetan, hilak 24, egingo da, 10:00etatik 13:30era. Ekintzaren helburua da Getxoko Abra babesteko, jateko eta baita negua igartzeko aprobetxatzen duten hainbat hegazti espezie – besteak beste, anbetak, koartzak, txilinportak, murgilak, pottorroak eta araoak – erakustea bertara hurbildu nahi den jendeari.

ALBEk jasoko du “Argia Ereiten” Euskara Saria, azaroaren 28an RKEn

ALBE Algortako Bertsolari Eskolak jasoko du Argia Ereiten, 9.Euskara Saria azaroaren 28an, asteazkena, 20:00etan, Romo Kultur Etxean, 1980an sortu zenez geroztik euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanagatik.

ALBE 1980an sortu zuten Trino Azkoi-tiak eta Andoni Iriondok euskal giroan eragiteko. Lehenengo bertso eskolak nahiko informalak izan ziren, Zabala ikastetxean, bertsozaleak bildu, bertso paper zaharrak atera, eta horiek kantatu, ondoren, tabernaz taberna amaitzeko. Urte batzuk igaro ostean, San Nikolas ikastolara pasatu ziren, eta horrek aldaketa ekarri zuen, eskola formalagoekin. Orduan, 1985ean, euskaltegietatik heldutako irakasleak eta gazteak sartu ziren, horien artean, Joseba Santxo, gehien bat jakinminez, eta “mundu zoragarri bat deskubritu genuen, euskara irakasleontzat hura paradisu moduko bat izan zelako, bertsoetarako euskara ezinbesteko tresna zelako”.

Jauzia ikastetxeetara

Ondoren beheraldi bat izan, eta bertso eskolak ikastetxeetara zabaltzeko erabakia hartu zen. Handik gutxira, hitzarmen bat sinatu zen Getxoko Udalarekin herriko ikastetxe guztietan bertso eskolak emateko, gaur arte. Ia mila ikasle aritzen dira eskualde osoan, gehienak getxotarrak. Horretaz aparte, eskola ordutegitik kanpoko bertso klaseak ere egoten dira hainbat ikastetxetan, bertso teknika, oinarria eta abar lantzeko. Bi maila horietatik igarotzen diren zale-tuentzako hurrengo urratsa ALBE-n sartzea izaten da.

Bertsolariak astearte arratsaldeetan Aldai Patronatuaren egoitzan (Algortako Karitate 1) biltzen dira bapatekoan kan-



tatzeko. Gaztetxo, gazte eta nagusien taldeak daude, eta baita hasi berri batzuk, guztira 60 bat lagun.

Ausarta eta erreferentea

ALBE erreferente da Euskal Herriko eskolen artean, hiru zutabekin: sustapena, transmisioa eta ikerkuntza. Sustapenean urtean 30 saiotik gora (Bertso jirak, Bihotza Gazte, ALBE gala, Bertso Jaialdi Mundiala,...) antolatzen dira, asko Euskal Herri mailakoak, bereziak eta inon egiten ez direnak.

Ikastetxeetan egiten den lanean oinarritzen da transmisioa, eta ikerkuntza alorreko etengabeko jarduna dago eskolan. Horretan eta antolakuntza lanean dabilen Goizalde Atxutegi eskolara hurbildu zen 15 urte zituela bertsoan egiteko. Horretan hainbat urtetan ibili ondoren, gai-jartzailtzan hasi zen “uste dut eskola ausarta izan dela beti, formatu zaharrak berreskuratzeko, esaterako, Bakoitik Balkoira, eta berriak plazaratzeko, eta horren barruan, enblema da Bertso Jaialdi Mundiala, entzule

asko batzen dituen, bertsoa jolasa izanda. Izaera berritzailea izan da iraupenaren eta egonkortasunaren motiboetako bat eta gainera klabea izan da ulertzea bertsozalea antzira dela, eta bertso-zaletzeko ere izan behar direla saioak”.

Santxo eta Atxutegi bat datoz esatean elkarlana eta talde lana ere direla eskolaren beste ezaugarrietako bat, eta baita harremanak erakunde publikoekin eta herri elkarteekin izatea ere.

Txapela ugari

ALBEren ibilbidean sari eta txapel ugari ekarri dituzte bertsolariak Getxora. Jone Uria da bat, eskolako kide askok egin duten ibilbidearekin, hau da, Eskolan bertsoan aritzeko sartu, trebatu, bertso eskolak eman eta kudeaketan eta zuzendaritza batzordean aritu. Berarentzat txapelak eta final eta finalerdietara ailegatzea garrantzitsua da, “egia da eskolaren icebergaren punta baino ez da, baina gauza ikusgarrietako bat ere, eta garrantzitsua da herrian erreferenteak izatea. Niri

lagundu zidan Fredi eta Xabi Paia erreferentetzat edukitzeak, biak Bizkaiko txapeldun ikustea posible dela sinisteko”. Une hone-tan Bizkaiko Txapelketaren finalerdietan lau getxotar daude.

Bertsolari gazteak euskaldun konprometituak

Bertso Eskolan dabilzan gazteak euskaldun konprometituak dira, eta horietariko bat da Paule Loizaga. Eskolak lagun berriak egiteko eta toki berriak ezagutzeko ateak zabaltzeko eta han ikusi du eskualdean bazegoela euskaraz jarduteko era dibertigarria. “Niretzat eta gainontzeko gazteentzat euskara hutsean bizi ahal izateko espazioa izan da. Bertso eskolan sartu nintzenetik nire kuadrillako batzuek nirekin euskaraz egiteko ohitura berreskuratu dute, euskaraz bizitzeko gogo eta ohitura agerian utziz. Bertso eskolak horretarako lagundu du. Horrekin batera, saioek bermatzen dute herrian eskaintza euskalduna egotea. Bertsoek eta euskarak lotzen gaituzte guztiok”, amaitu du Loizagak.

Txapa jantzi eta bete rola 11 egunez Euskaraldian

Ostiralean, azaroak 23, 17:30ean, Algortako eta Areetako Geltokia, Bidezabal eta Malakate plazetan, euskararen erabilera sustatzeko, 11 egunez ohitura hizkuntzak aldatzea eragin nahi duen Euskaraldian irekiera ekitaldiak izango dira. Hori dela eta, hurrengo egunetan, herriko entitateekin elkarlanean, antolatutako ekitaldien artean, RKEn *Toronbole* familia antzerkia izango da hilaren 24an, eta *Beldurrak* bakarriketa eta Barreterapia ikuskizuna Onintza Enbeitarekin Azebarri elkartearen egoitzan, azaroaren 27an eta 29an, hurrenez hurren. Bestalde, aukeratutako rola (Ahobizi, Belarriprest eta Irribizi) txapak hurrengo tokietan hartu ahal izango dira hurrengo



egunotan: abenduaren 3ra arte Udaleko Euskara Zerbitzuan eta Bizarra Lepoan eta Egizu elkartearen egoitzetan; azaroaren 27ra arte Villamonteko Kultur Etxean eta Romo Kultur Etxean, eta azaroaren 23an, Malakate, Bidezabal, eta Areetako eta Algortako Geltokia plazetan.

Euskaraldian 11 egunetan zehar hizkuntza-ohiturak aldatzea izango da helburua eta hori errazteko gomendatzen da ohiturak aztertu eta euskarari ekitea, zailtasunen aurrean amore ez ematea, hartutako erabakiari eustea eta ikurra agerian eramatea.

Informazio gehiago: www.getxoztarrak.eus

Eskerrik asko Irribiziei

Getxoko Euskaraldia batzordeak (Udalak, eta Egizu eta Bizarra Lepoan elkarteek antolatuta) Irribiziei eskerrak emateko antolatutako ekitaldian 200 bat pertsonak hartu zuten parte ostiralean Romo Kultur Etxean. Getxon, Euskaraldia (11 egunez euskaraz) ekimenaren barruan, Irribizi rola dutenek euskara ez jakin arren, euskararen aldeko jarrera dute, eta kasu askotan, seme-alabei lagundu diete euskara ikasten. Haiei eskerrak eman zizkieten oso hunkigarria izan zen.



Hainbat kontzertu solidario Fair Saturday-n

Fair Saturday izeneko ekimen solidarioa dela eta, Areetako Ondarreta eta Algortako Biotz Alai abesbatzek kontzertua eskainiko dute larunbatean, hilak 24, 20:00etan, Areetako Ama Mesedeetako elizan. Bildutako dirua Sortarazi elkartearentzat izango da, arrazoi pertsonal, giza eta/edo ekonomikoengatik ahultasun edo baztertzeko arrisku egoeran dauden pertsona eta familiei hainbat laguntza eman ahal izateko.

Gainera, Zozaok eta Irutasun abesbatzak egun berean arituko dira, 20:15ean, Algortako Hirutasunaren elizan (San Martin kalea 6). Oraingo

honetan, bildutako dirua Vicente Ferrer Fundazioarentzat izango da. Fair Saturday-n parte hartuko duen beste talde getxotar bat Eskuz Esku abesbatza izango da, baina hau Madrilera joango da eta bertan Fundación Ana Bella-ren alde arituko da.

II. Fair Saturday galan sarituta-koak

Hilaren hasieran Guggenheim museoan Fair Saturday sarien II. Gala egin zen eta bertan baloratu egin ziren Fair Saturday izeneko mugimenduen pertsona eta abesbatza sortzaileak, giza inpaktua duen mugimendu kul-

turala, 2014an Bilbon jaio zena, hain zuzen ere.

Saria jaso zutenen artean Ondarreta abesbatza eta udal Musika Eskolako Andrés Isasi korua izan ziren; kultura eta gizartearekin duten konpromisoagatik saritu dituzte.



“GART –temporada 18 episodio 2-”, San Nikolasen

Garrobi elkarteak (Getxoko Artisten Harrobia) GART –temporada 18 episodio 2- topaketa artistikoa antolatzen du larunbat honetarako, azaroak 24, Algortako San Nikolas plazan eta inguruetan. Plazan bertan, zein bertan dauden pilotalekuan eta lokaletan, eta inguruko kaleetan, hainbat diziplinetako sortzaileen proposamen artistikoak bilduko dira. Proiektuak aurkeztuko dira, erakusketak antolatuko dira, baita performanceak, antzerkia eta musika ere, besteak beste.

Antolatzaileek gogorarazi dutenez, “atal honetan, alderdi eszenikoa eta performatiboa nagusitzen dira, gure egunerokotasunean gertatutakoari buruzko istorioak, itxuragabetutakoak, kontatuko dizkigute... Errealitate surrealista, zentzugabe eta itxuragabetutako atal honetan, guk gonbidatutako artista ezin zitekeen Juan Malk baino izan. 2015etik, lehendabiziko Gart egin zenetik, Malkek leihoak ireki ditu gure hormetan”. Izan ere, 17:00etan, Juan Malken hitzaldia hasiko da, Rebel Tattooren erakusleihoari buruz, Basagoiti Etorbidean. Une horretatik aurrera, obra eta artistak etorriko dira bata bestearen atzetik, etengabe, 22:30ak arte; orduan, azkenean kontzertuaren ostean, hitzaldia eta bazkaria izango dira frontoiko arkupeetan. Honako hauek izango dira: Juan Malk bera (Esku-hartze piktorkoa), Eriz Moreno (Bideo-proiektzioa), Imprimiendo 3D (Esku-hartze eskultorkoa), Vida-Looka, NoGusano (hitz gabeko antzerkia) Impro y punto (bat-bateko teatroa), Misterio Bufo (Antzerkia) eta Unai Azkune eta Jaime Nieto (Musika). Argibide gehiago: www.garrobi.com.



Aba Taanoren ongintzako kontzertua Areetan

Afrikako Aba Taano ahots-taldeak gospel a capella ongintzako kontzertua eskainiko du ostiralean, azaroak 23, 19:45ean, Areetako Ama Mesedeetako parrokan. Emanaldia bukatu ondoren dohaina eskatuko da.

Bildutako dirua *Música para salvar vidas* izeneko proiekturako izango da, Ugandako neska eta mutil umezurtz laguntzeko, musika eta dantzaren bitartez hazteko eta ikasteko, herrialdean bertan etorkizun bat aurkitu ahal izateko helburuaz.

Aba Taano umezurtz-etxe horretan bertan sortutako lehenengo taldea da eta, bere talentuari, ausardiari eta lan gogorrari esker, gairitu ditu arrakasta-itxaropen guztiak. Informazioa: www.musicaparasalvarvidas.org



Herbehereak, Italia eta Euskal Herriko artistak, Nazioarteko Trikitixa Jaialdian

Larunbat honetan, azaroak 24, egingo da Getxon Nazioarteko Trikitixa Jaialdia, Herbehereak, Italia eta Euskal Herriko artistak bilduko dituen. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan egingo da, 19:00etan. Sarrerak 8€an ari dira saltzen.

Jaialdira joango diren pertsonak honako talde hauekin gozatzeko aukera izango dute: Remco Sietsema (Herbehereak) eta Filippo Ganbetta & Carmelo Ruso (Italia), beren mu-



sikarekin akordeoi diatonikoaren moldakortasuna eta xarma erakutsiko dituztelarik; Irati Gutiérrez & Amets Ormaetxea eta Iñaki Plazaren (Euskal Herria) gaiekin batera.

Horrez gain, jaialdia amaitutakoan jaiak segida izango du Algortako Azebarri Kultur Elkartearen egoitzan (Euskalerrria kalea 14-16), triki jai batez. Jai horretarako sarrera dohainik da.

KIROLAK

Getxo Errugbia indartu egin da Kelli Smith estatubatuarrarekin

Ora Williams joko-zabaltzaile zeelandaberritarra fitxatu ondoren, Getxo Errugbiko zuzendaritzak taldea bigarren jokalaririk indartzeko erabakia hartu du: Kelli Smith hiru laurdenekoen lerroko estatubatuarra ekarri du taldera, abiadura handiko jokalaria.

Rugby Union delakoari dagokionez, bere herrialdeko bigarren taldearekin jokatu du zenbait aldiz, hainbat txapelketetan. Lehen Maila estatubatuarrereko hamabosteko ezin hoberrak ere hautatu dute, internazional absolutua ez den atzelari onena bezala. Izan ere, Alabamako Unibertsitateko

atleta ohia da, jauzi modalitatean aritutakoa. Errugbiaz gainera, Kelli beste kirol batzuetan ere aritu da, hala nola futbol amerikar profesionalen; nabarmenezkoa da Atlanta Falcons bezalako taldeetan izan dela.

2017an, *Next Olympic Hopeful* estatubatuarraren telebistako reality showa irabazi zuen eta EEBBetako etorkizuneko kirolari olinpiko onena izendatu zuten. Klubeko presidentek, Alberto Zubeldiak, azpimarratu du “jokalaririk berri hauek taldea buruan izateko laguntzeaz gainera, Getxon errugbia aktiboki sustatze-ko ere parte hartuko dute”.

Nicolás Sáenz txirrindularia profesionaletara igaro da

Nicolás Sáenz, Punta Galea Tx.E.-ko gazte kategorietan trebatutako txirrindularia, profesionaletara igaro da Manzana Postobón talde kolonbiarraren eskutik. Bai gazte mailan bai 23 urtez azpikoan, txirrindulari getxotarraren ibilbidea eta goranzko abantzia ez dira inorentzat konturatu gabe gertatu. Zenbait talderekin parte hartu duen probetan maila handikoa eta laguntzaile gisa balio handia duela erakutsi du, eskalatzaile aparta bezala nabarmendu delarik. Bere lasterketak azpimarratzeko modukoak izan dira, batez ere, Eiser Hirumetekin eta Li-

zarterekin, Movistarren eskumendeko taldea, zeinekin Leongo Itzuliko 23 urtez azpiko sailkapen orokorra irabazi zuen.

Bestalde, Eiser Hirumetek, Punta Galea Tx.E. eta S.C. Duranguésaren talde fusionatua eta, besteak beste, Getxoko udalako babestutakoa, bere laugarren denboraldia hasi du 23 urtez azpiko elite kategorian, Urkiolako parke naturalean kontzentrazioa eginez. Taldea 20 txirrindulari osatuko dute eta horien artean aurpegi berriak izango dira, bost fitxaketena eta gazte mailatik igo diren lau txirrindulariarena.



Aita edo ama izatea
nahi legitimo eta
ulergarria da, baina
ez da eskubide bat.

Konpartitu Beldur Barik jarrera!



Beldur Bariklen, gazteen artean indarkeria sexista prebenitzeko Emakundek antolatzen duen urteroko programa, edizio berrian Getxon jarduera batzuk egin dira. Horien artean udalerriko ikastetxeetan urrian eta azaroan egin den hiru ordu inguruko tailer bat azpimarra daiteke. Jarduera horretan gazteekin landu dira tratatu onen arloko erlazioak ezartzeko eta eraso heterosexistak prebenitzeko jarrera eta jokaera positiboen ildoak. Programaren barruko beste jarduketetako bat, sare sozialei begi-keinu bat eginez, aurten *Konpartitu Beldur Barik jarrera* leloa duena da. Lehiaketa 12 eta 26 urte arteko pertsonentzat da eta ikus-entzunezkoen formatuko adierazpen artistikoak saritzen ditu, zertarako eta begirunean, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, erantzukidetasunean eta biolentzia sexistaren aurkako jarrera sendoan oinarrituta neska eta mutileri Beldur Barik jarrerarekin desberdintasunei nola aurre egin erakusteko. Aurreko edizioan 390 lan aurkeztu ziren eta lehiaketan parte hartu zuten gazteak 2.664 izan ziren. Programak www.beldurbarik.eus weba dauka, eta baita profil propioa sare sozialean ere (Facebook, Twitter, Instagram eta Spotify) gazte jendearen artean Beldur Barik jarrera garatzeko.



Eider Rodríguez "Bihotz handiegia", Euskadi 2018 Saria

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) irakaslea den Eider Rodríguez ipuinen *Bihotz handiegia* bilduma Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Euskadi Sarietako baten irabazlea izan da, zehatzago esanda euskarazko literatura modalitatean. *Bihotz handiegia* obraren barruan Donostia eta Hendaia arteko mugaren aldeko jende apalari buruzko sei kontakizun daude. "Ez da gertakizun epikorik gertatzen, dena da oso arrunta. Dena dela, egunerokotasun horren barruan beti daude sorpresazko une arraroak eta horietan jarri nahi izan dut gakoak", esaten du Rodríguez. Epaimahaiak esan duenaren arabera "idazleak pertsonaia bihurriak eraikitzen ditu era

orijinalen gizakiaren ezkutuko gaizkia bilatzeko. Argiak eta ilunak tartekatzen ditu goi mailako literatura eskainiz. Liburua gauza da gizaki garaikidea lotzen duten kontraesanei eta dutei aurrea hartzeko". Rodríguez ipuinen beste hiru liburu ditu argitaratuta: "Eta handik gutxira gaur", "Haragia" eta "Katu jendea". Aldi berean "Itsasoa da bide bakarra. Joseba Sarrionandia irakurritz" izenburua duen saiakeraren egilea da eta esan du urte hasierarako uen hauetan esku artean duen lan berri bat argitaratuko duela: emakumeen autoretza eta gorputzari buruzko kritika literarioaren arloko saiakera bat.

Transexualitateari buruzko mahai-ingurua

Getxoko udalak antolatu zuen mahai-inguruaren izenburua *Acercándonos a las transexualidades* izan zen eta LGBTI, Lesbiana, Gai, Bisexual, Transexual eta Intersexualen Eskubideen Egunean antolatu zen. Ekitaldian ikuspegi desberdinetatik aztertu zen transexualitatea: bizitza pertsonala eta familiarra bera, gizartean duen eragina, hezkuntza-laguntza eta gizarte askotariko eta dibertsoan aurrera egiteko irekita dauden bide politiko eta erakunde mailako bide posibleak. Mahai-inguruan esku hartu zuten Teo Valls-ek, espezialista dena emakumeekin autodefentsa tailerrak eta gizonekin pribilegio maskulinoa kuestionatzeko tailerrak egiten. Beste gauza batzuen artean *De Berta a Teo. Historia de un tránsito*



dokumentala proiektatu zen; dokumental horretan aldaketaren prozesua kontatzen da. Halaber, Bea Severek parte hartu zuen, Chrysallis Euskal Herria elkarteko kidea denak; elkarte horrek EAE eta Nafarroako adingabe transexualen 80 familia baino gehiago biltzen ditu. Umeen adineko transexualitateari eta familiei eta umeei laguntza eskaintzeari buruzko informazioa eman zuen. Azkenik, sexologoa eta Pasaiako udaleko berdintasuneko teknikaria eta trans aktibista den Aitzole Aranetak hitz egin zuen; azken hau gizarteak transexualitateari dagokionez arrastatzen dituen mitoei buruz mintzatu zen eta aurkeztutako azken lege proposamenei buruzko hausnarketa egin zuen.

Staff
EMEKI


Argitaratzen du: Getxoko Udalaren Berdintasun Zerbitzua. Urgull z/g 48991 Getxo.
Tel.: 94 466 01 36.
e.posta: berdintasuna@getxo.eus.
Erredakzioa: Kahlomedia S. Coop
Diseinua eta maketazioa: Bostnan Bilbao S.L.

Gomendioak

Dokumentala

“Cubanas. Mujeres en revolución”

María Torrellas zuendariak *Cubanas. Mujeres en Revolución* dokumentala estreinatu du; lan honetan emakumezkoek izandako rola berreskuratzen da, Kubako iraultzaren hasieratik gaur egunera arte. “*Itxaropena eman eta borrokaren, balioen eta gizatasunaren bidea zehazten diguten emakumezko guztien aldeko omenaldia da*”, adierazi du Torrellas-ek. Filmean Haydée Santamaríaren gisako heroiak azaltzen dira; emakumezko horrek parte hartu zuen Moncadako kuartela 1953ko uztailaren 26an hartzeko lehen saiakeran eta, porrot egin arren, horixe izan zen sei urte geroago gailendu zen iraultza kubatarraren lehen urratsa. Bestelako protagonistak ere azaltzen dira, hala nola Celia Sánchez, *Las Marianas* pelotoi femeninoa sortzeko sustatzaile nagusia, eta Vilma Espín, ingeniari kimikoa prestakuntzaz eta iraultza kubatarraren buruzagi politikoa. Halaber, Torrellas-ek eraturako istorioak arlo eta adin guztietako emakumezkoen lekukotzak jasotzen ditu, eta hainbat gai jorrotzen dira, besteak beste 60 hamarkadan aurrera eramandako alfabetazioa, hezkuntzaren garapena, blokeoaren kontrako erresistentzia, elkar-tasuna eta sexu askatasuna defendatzeko LGBTI martxak.



Liburua

“No te pongas nerviosa”

Feminista, ikertzailea eta Euskal Herriko Unibertsitako (UPV/EHU) Zientzia Politiko eta Administrazioaren irakaslea den Jone Martínez-Palacios-en entsegu honek interpretazio marko kritikoa jorrotu nahi du nerbioen gaineko diskurtso guztiak egituratzen dituzten printzipioen berriazko ezkutaketa dela eta. “Ez jarri urduri” esaldia abiapuntua da arlo politikoan herritarren eta merkatuaren egoera urduriez kezkatutako diskurtsoak nabarmen handitzen ari direla esperimentatzeko. Bizipen pertsonalak, ebakipuntutasunaren tresnak, feminismo beltzaren testuingurua eta gizarte teoria bourdieutarraren ulermen lanabesak uztartuz, orrialde hauetan ikuspegi kritikoa elikatzen bideratutako planteamendua eskatzen da ustez naturalak diren gaien inguruan; halaber, botere egiturak agerian jartzen dira eta arrazan, generoan, klase sozialean, adinean, hizkuntzan, sexualitatean eta abarretan oinarritutako nagusitasuna desaktibatzen diren estrategiak eskatzen dira. Horrek guztiak frogatzen du urduritasunari buruz hitz egin daitekeela urduri jarri gabe, itxuraz behintzat...

Musika

Aretha Franklin, feminismoaren eta afroamerikarren eskubideen borrokaren ikonoa

Aurreko abuztuan zendutako Aretha Franklin 20 Grammy sari irabazteko erronka historikoa lortutako soul-eko *divoa* edo Time aldizkariako azalean agertutako lehendabiziko emakumezko beltza izateaz gain, beste hainbat arlotan nabarmendu zen. Izan ere, urteek aurrera egingo dute eta feminismoaren eta pertsona beltzen eskubideen aldeko borrokaren ikono gisa gogoratzen jarraituko dugu. Haren kantarik ospetsuenetariko bat *Respect* izan zen. Himno horrek kantari entzutetsu bilakatu zuen. Franklinek birformulatu zuen Otis Redding-ek bi urte lehenago grabatutako jatorrizko lana; kanta horretan gizonezko batek emazteari eskatzen zion errespetatzeko eta zaintzeko, desleiala izanagatik ere, berak jartzen baitzuen etxea mantentzeko dirua. Artista estatubatuarra ospetsu bihurtu zen lan horri bestelako esanahia emanez. Haren bertsoan arreta jartzen zen istorioaren emakumezkoarengan. Izan ere, berak exijitzen zion senarrari errespetatzeko eta merezi zuen bezala tratatzeko. Beltza izateaz harro agertzen zen emakumezko batek munduari ziotson errespetua nahi zuela. Kantariak abestia mezu politiko gisa grabatu ez arren, *Respect* emakumezkoen eta afroamerikarren mugimenduen himno bilakatu zen eta salmentetako lehenengo izatera iritsi zen Iparramerikan. “*Hara iritsi izanak eta leku horretan asteetan iraun izanak harritu ninduen. Baina kanta zuzena zen une egokian*”, esan zuen bakarlariak. Eskerrik asko Aretha.





Amatasun subrogatua, merkatu-hobi berria

“Rakel, Jakobi semerik ezin ziola eman eta, ahizpaganako jeloskor jarri zen. Esan zion Jakobi: Emazkidazu semeak edo hil egingo naiz. Jakob haserretu egin zen Rakelekin (...) Rakelek orduan: Hor duzu nire neskame Bilha. Elkar zaitetz

berarekin eta emango dizu semerik nire orde; honela, nik ere izango dut semerik, hura bitarteko. Eta bere neskame Bilha eman zion Jakobi emazte gisa. Elkartu zitzaion Jakob. Eta Bilhak haurdun gelditu eta semea eman zion Jakobi”

Genesiaren zati hau da *El cuento de la criada* telesailen “zeremoniaren” erritua justifikatzen duena. Istorioa hasten da izurri batek munduko emakumeen gehienek ernalezintasuna eragiten duenean. Ezkutuan burututako estatukolpe baten bidez, gizon-talde batek Gileadeko Errepublikan (antzinako Estatu Batuak) bereganatzen du, eta diktadura teokratikoa ezartzen du. Mundua leku hobe bihurtuko dutela esaten dute. Ezartzen diren arau moralen artean dago ugalkor geratzen diren emakumeek beste eginkizun bat ematea: esanekoak izatea, esklaboak eta alokatutako sabel gisa erabiltzea. Hori lortuta, mirabeak izatera pasatzen dira etxe batean, hilean behin beren gorputzak eskaintzeko asmoarekin, ardurapean dituen komandanteak ernal ditzen. Hori da aurretik aipatutako pasartea irakurtzen den zeremonia. Haurdun geratzen badira, erditzen dutenean, umea berehala komandantearen emazteari entregatzen zaio. Dagoeneko beharrezkoak ez direnean, beste etxe batera bidaltzen dira berriro haurdun gera daitezten.

Errealitateak fikzioa gainditzen al du? Zientzia-fikzioaren irudi gogor horrek antzekotasun handia du beste irudi erreal horrekin. Indian, Nigerian eta garatzeko bidean dauden beste herrialde batzuetan “umetarako emakumeen granja” edo “baby factory” gisa ezagutzen diren laguntza bidezko ugalketak klinikak daude, eta hor, milaka emakume behartsuk beren gorputza alokatzen dute 9 hiletan. Legezko kontratu

bidez, gizaki bat sabelean hazteko konpromisoa hartzen dute, planetako beste leku bateko norbaitentzat, eta horrek, 55.000€ ordain ditzake Errusian edo Ukrainan bada, edo 3.000€ Thailandia, Kanbodia edo India aukeratzen baditu. Umea hazten duten emakumeek %20 bakarrik eskuratuko dute, zortea badaukate. “Harrigarria da arraza zuriko umeak hazten dituzten Indiako emakumeak ikustea, eskatu diren obulu-emaileak kaukasoarrak, Ukrainakoak edo Estatu Batuetakoak direlako”, ohartarazi du Ianire de la Calvak, FeministAlde! Bilboko elkarteko feminista, antikapitalista eta internazionalistako kideak.

Haurdunaldi subrogatua, alokatutako sabelak, amatasun subrogatua, ordezkaturako haurdunaldia, haurdunaldiko subrogazioa...Hainbat termino daude. Norberak gaiari buruzko bere balorazio etikoa du, baina denek fenomeno bera aipatzen dute: emakume, gizon

Indian, Nigerian eta garatzeko bidean dauden beste herrialde batzuetan “umetarako emakumeen granja” edo “baby factory” gisa ezagutzen diren laguntza bidezko ugalketak klinikak daude, eta hor, milaka emakume behartsuk beren gorputza alokatzen dute 9 hiletan.

edo bikote batek ezin dutenez umerik eduki, bai gizonenak, bai emakumeenak (alderdi subrogatzailea), beste emakume baten gorputzaz (alderdi subrogatua) baliatzen dira ume bat izateko. “Jadanik ez gaude laguntza bidezko ugalketa tekniken esparruan; baizik eta bizitzak, desioak, gorputzak eta merkataritza-harremanak jokoan jartzen diren harreman baten barruan, globalizazio neoliberalaren esparru batean”, zehaztu dute gai horren inguruan aritzen diren Radio Vallekas irratiako *La Contraparte* irratsaioan. Jar-duera horren lehen kasua Michiganan izan zen, 1976. urtean. Espainiako Estatuan 2009. urtean onartu zuten lehen umea erregistroan inskribatzea. Hurrezkeroko fenomenoak hazten jarraitu dute, eta diotenez, nazioarteko adopzio-tasen gainetik dago dagoeneko. “Gaur egun 20.000 neska-mutil inguru jaiotzen dira munduan haurdunaldi subrogatuaren bidez, eta fenomeno horrekin lotutako elkarteek diotenez, Estatura 1.000 eta 1.400 neska-mutil inguru heltzen dira haurdunaldi subrogatuaren eta lokatutako sabelaren bidez. Horietatik, 250 inguru Euskadin erregistratuta daude”, adierazi du Emakundek joan den apirilean argitaratutako *Haurdunaldi subrogatua edo alokatzeko sabelak?* txostenean.

Gizarte eztabaidak, eztabaida etiko eta juridikoak

Azken urte honetan gai horren inguruko eztabaida areagotu da, izan ere, hainbat eztabaidagai daude: interesak eta eskubideak, herrialdeen arteko desoreka, klaseen arteko borroka, berdintasuna, feminismoa, heteroarautik kan-

po dauden haurdunaldirako aukerak, sistema pribatua publikoaren aldean, borondatea eta beharra, eskubidea edo desioa eta abar.

Ez dago gai honen gainean nazioarte mailan legeak ematen dituen testurik, beraz, legezko egoera desberdinak daude herrialdearen arabera. Horrek, eremu zabala barne hartzen du, debekatzearen eta uztearen artean. Estatuan nolabaiteko labirintoa dago. Hor, alde batetik, eskubideak gauza bat dio, baina praktikan, kontrakoa gertatzen da. 2006ko Laguntza bidezko Giza Ugalketa Tekniken Legeak fenomeno hori debekatzen badu ere, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren instrukzio batek, atzerriko auzitegi batek onartutako filiazio bat inskribatzeko aukera eman zuen. Hori da Estatuan subrogaziora jotzen duten pertsonen erabiltzen duten bidea, Auzitegi Gorenak kontratu horiek ez dutela balio argi utzi badu ere.

Zer ekartzen du amatasun subrogatua?

Batzuek proposatzen dute “haurdunaldi subrogaturiko eskubidea” arautzea, “askatasuna adierazteko” beste modu baten moduan. Sara La Fuentek, *Vidas Precarias* blogaren egileak adierazi du “gauza berriak arautu behar ditugula esaten duen pentsamoldean nolabaiteko tranpa bat dago. Hori ez da berria. Jadanik araututa dago. Laguntza bidezko ugalketa arautzeko modua erabaki zen unetik debekatuta dago. Hau mahai gainean jartzeko hainbat alderdi egiten ari diren presioa ikertu behar da”. Proposamen hori

“Gauza berriak arautu behar ditugula daukagun pentsamolde horretan, nolabaiteko tranpa bat ere badago. Hori ez da berria. Jadanik araututa dago eta laguntza bidezko ugalketa nola arautu erabaki zen unetik debekatuta dago”.

honela interpreta daitekeela ohartarazi du: *“hemen arautuko dugu eta horrela arduratuko ez garen merkatu bati atera irekiko diogu”*. Bere ustez, *“ez luke zentzurik izango arautzen saiatzeak, nazio gairako gaia kontuan hartu gabe, funtsezkoa delako gai honetan”*.

Zenbait pertsonak haurdunaldi subrogatua zergatik arautu behar den hainbestezko premiaz galdeztzen diete beren buruei, eztabaidaren atzean gi-

zarte-eskaerarik ez badago. Horietako bat Martu Langsstrumpf da, blog beraren egilea. Berak hauxe dio: *“lobby komertzialak, agentziak eta laguntza bidezko ugalketa-klinikak hurrengo mezu hunkigarriekin presionatzen ari dira: ‘zelako pena ematen dute umeak eduki ezin dituzten gurasoek!’*. Jendea agentzia hauetako web-orriak ikustera animatzen dut, haurdun geratu ezin diren emakumeen GKEak diruditelako. Eta pertsona horiek benetan kezkatzen dituzten edo enpresa handietarako eta abokatu-bulego berrietarako merkatu-hobi bat den”.

June Fernandezek, *Pikara Magazine* aldizkariako zuzendariak, ondorio gisa laburtzen du ideia hori, eta ernalezintasuna gizarte-arazo bat gisa hartzea proposatzen du: *“familiei errua bota, eta estigma hori beste batekin areagotu ordez (emakumeak esplotatzen dituzten familia nartzisistak). Uste dut komenigarria izango litzateke ikustea nola honda dezakegun sistema kapitalista bat, produktibista, bizitzarekin bateraezina dena, ugalketa eta zainketak boikotatzen dituen, azken unean, gure ernalezintasun-arazoetarako irtenbide merkantilizatua eskaintzeko”*.

ZATIKATZEA

Haurdunaldi subrogatua arautzeko egon daitezkeen ereduaren arteko desberdintasunak:

PROHIBIZIONISTA: emakumeek ezin dute beste pertsona batzuentzat umeak sabelean hazi. Estatuko mugaren barruan eta kanpoan ezarrita egon beharko luke; bestela, erregulazio arrazista bat izango litzateke.

ALTRUISTA: tartean dirurik ez dagoela bermatuko litzateke. Aurretik lotura egon daiteke haurdunaren eta umea izan nahi duten gurasoen artean. Kanada eta Erresuma Batua eredu horren adibideak dira. Gutxienez hitz egiten dena da, eta modu publikoan kudea liteke, ONTk agian (Transplanteen Erakunde Nazionala).

ALTRUISTA KONPENSATZIOAREKIN: ohikoa da “konpentsazio” horrek haurdunen fluxua eta profila bakarrik ezartzea, Espainiako estatuan obulu-ematearekin gertatzen den moduan. Gehien eztabaidatutako ereduak da, eta proposamen politiko gehien jasotzen dituen ere bai.

MERKANTILISTA EDO LABORALA: lan-merkatuaren legeei jarraituko lieke, araubide arautzaile bati, kotizazioari, gizarte-segurantzari, lan-kontratuari eta bestelakoei lotuz.

Getxoko Emakume Elkarteak

BILGUNE FEMINISTA

Elkarte Feminista
bfgorta@gmail.com

ENCLAVE DE CIUDADANAS POR GETXO

Berdintasunaren aldeko Plataforma Zibikoa
Martikoena 16
enclavegetxo@gmail.com

ESKUZ-ESKU

Prestakuntza eta Garapenerako Emakumeen Elkarte
Martikoena kalea 16, 1. solairua. 48992 Getxo
Tel. 94 430 08 35
eskuz-esku@hotmail.com

GIZATIAR

Romo eta Areetako Emakumeen Gizarte eta Kultur Elkarte
Gobelaurre parkea z. g. 4893 Getxo
Tel. 94 463 50 12
gizatiar@hotmail.com

RODA

Kultur Elkarte
Areetako Etorb., 10 behe esk. 48930 Getxo
Tel. 94 463 18 96
asociacion_roda@telefonica.net

MUJERES CON VOZ

Etorbin eta bertako emakumeen topaketak bultzatzen dituen elkarteak da
asociacionmujeresconvoz@gmail.com

Emakumeen jabekuntza eskolak

Emakumeen Jabekuntza Eskolak 15. urteurrena ospatu du

Getxoko Emakumeen Jabekuntza Eskolaren 15. urteurrena dela eta, ikasturte berria irekitzeko jardunaldi bat egin zen joan den urriaren 10ean Romo Kultur Etxean (RKE). Ekitaldi horretan, honako hauek parte hartu zuten: Imanol Landa Alkateak; Izaskun Landaidak, Emakundeko zuzendariak, “Emakumeen jabekuntzari” buruz hitz egin zuena, eta Bego Garcia, Udaleko Berdintasuneko teknikariak, “Getxoko Jabekuntza Eskolaren 15. urteko” jarduerari buruzko balantzea egin zuenak. Ekitaldiaren amaieran Gizatiar abesbatza aritu zen.

Hamabost urte hauen balantzean, Eskolatik adin eta jatorri guztietako 1.600 emakume baino gehiago igaro direla nabarmendu zen. Eskola, topaleku, eztabaidatzeko eta parte hartzeko leku gisa balio izateaz gain, emakumeak talde eta sareetan antolatzeak aukera ere ematen du. Eskolaren helburua kalitatezko prestakuntza eskaintzen jarraitzea eta prozesu osoari buruzko azterketa eta gogoeta matentzea da. Hala ere, formulak bilatzen jarraituko da, gure udalerrietako emakumeek arlo politiko eta sozialean parte hartzea lortzeko.

2018-2019 ikasturterako partaidetzari dagokionez, nabarmendu behar da eskaintako tailerrek arrakasta handia izan dutela: izen-emate guztiak bete dira. Izan ere, Ainhoa Aldazabal euskal filologoak emandako *Euskal literatura feminista* tailerretarako plazak bakarrik geratzen dira. Ikastaroa euskaraz emango da, eta 5 euro balio du. Guztira, 20 ordukoa izango da, urta-



rrilaren 15ean, 22an eta 29an, otsailaren 5ean, 19an eta 26an, martxoaren 5ean eta 26an, apirilaren 2an eta 16an, 18:00etatik 20:00etara, Martikoena.

Tailer honen helburua euskal emakumeen literatura feminista irakurtzeko ohitura sortzea edo handitzea da. Horretarako, egileek literatura-objektua izatetik

literatura-subjektu izatera egindako ibilbidea aztertuko da. Izena emateko, inprimaki bat bete behar toki hauetako edozeinetan: Berdintasun Zerbitzua (Urgull kalea, z.g., 2. solairua. Algorta), edo Herritarren Arretarako Bulegoan. Bi tokien ordutegia hauxe da: 08:00etatik 14:00etara. Anima zaitetz eta parte hartu!

IANIRE DE LA CALVA
FEMINISTALDE!-KO AKTIBISTA

“Haurduntza subrogatuak lege eta politika arloko agendari eragiten dio, dirua baliatzen duen industria baita, eta horrek zuzeneko zerikusia du alderdi neoliberalak arautzeko duten nahiarekin”

Ianire de la Calva ingeniaria da, lesbiana, ama adoptatzailea eta FeministAlde! kolektibo feminista, antikapitalista eta internazionalistako kidea. Haurduntza subrogatuari buruzko artikulu eta elkarrizketak argitaratu ditu 2017ko hasieratik zenbait komunikabidetan eta Emakundek uztailean gai honi buruz antolatutako UPV/EHUko udako ikastaroetan parte hartu du

Zein testuinguru politiko eta sozialetan aztertu behar dugu haurduntza subrogatua?

Funtsezkoa da haurduntza subrogatua mundu heteropatriarkal eta kapitalista baten testuinguruaren barruan sartzea; izan ere, eredu horrek emakumezkoen gorputz eta sexualitatearen gaineko kontrol argia ezartzen du aberastasun iturri gisa. Ezin hobeto azaltzen du Silvia Federecik, esaten duenean uteroa ikusten dela langileen fabrika gisa sistema kapitalistaren hasiera-hasieratik. Lan merkatuaren prekarizazio gero eta handiagoak, herritarren krisialdiak eta gora doan pobrezia feminizazioak eragin dute indarkeria ekonomikoaren egoeran egotea, eta horixe haurduntza subrogatua aukera ezin hobea ari da lortzen.

Uste al duzu subrogazioaren industriak iritzi publikoaren barruan bultzatzen duela jardun hori aurrerapenaren elementua delako ideia?

Haurduntza subrogatua aurrerapenaren kontrako elementua da. Familiaren eredu tradizionalari lotzen zaio eta horretan kode biologizista oso indartsua da. Sara Lafuentek esaten duen bezala, “erreproduktzioaren aldeko diskurtsoak historikoki erabili izan dira gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak naturalizatzeko eta justifikatzeko”. Gainera, haurduntza subrogatua oso hazkuntza nahi zehatzari ematen dio irtenbidea, lotura genetikoa duen oinordetza propioari alegia, amatasun eta hazkuntza alternatiboko beste eredu batzuetatik urrunduz, hala nola adopzioetik, harreratik, baterako hazkuntzetatik, mapetatik, etab.

Aita edo ama izateko nahia gizarte kontsumista honen beste osagai bihurtu al da?

Aita edo ama izatea nahi legitimo eta ulergarria da, eta, gainera, pisu itzela du imajinario sozialean, baina ez da eskubide bat. Badakigu jakin nahiak eskubide bihurtzea dela neoliberalismoak egin ohi duena; beraz, zalantzarik gabe, atzean estrategia bat dago. Diru bidez bakarrik existitzen diren eskubideak pribilegioak baizik ez dira. Nahi bat ezin egon daiteke eskubide baten gainean, eta horixe da abusuzko klausulekin izenpetutako haurduntza subrogatuaren kontratu askotan gertatzen dena.

Zein da une honetan defendatzen duzun eredu eta zeintzuk dira horrek sorrarazten dizkizun zalantzak edo kontraesanak?

Nire iritziz, garrantzitsua da aldekotasun edo kontraktotasunean ez erortzea, haurduntza subrogatuaren lau eredu desberdin daudelako. Ni konformeago egongo nintzakete erabat altruista den eredu batekin, baina horri ere arazoak ikusten dizkiot. Garbi ez dudana zera da: nola antolatu hori marko legal baten barruan. Izan ere, nik balora dezaket nire ahizparentzat sabelean haztea, baina ez dut kontraturik behar hori horrela izango dela ziurtatzeko. Zalantzarik gabe, niretzat baliagarria den aukera bakarra merkantilizatu gabeko irtenbidea da, baina uste dut bestelako harreman eta hazkuntza mota alternatibo batzuei eman behar zaiela garrantzia.

Uste al duzu hautapen askea soilik erabiltzen dela jokoan dauden eskubideak emakumezkoenak direnean Benetako askatasuna soil-soilik ager daiteke justizia eta

berdintasuna azaltzen direnean, bestela botere erlazioa ezartzen baita. Hori berori gertatzen da haurduntza subrogatuaren kasurik gehienetan; izan ere, arraza eta klase desberdintasunak pilatzen dira eta ez dira plano berean kokatzen kobratzen eta ordaintzen dutenak. Hautapen askearen mitoa neoliberalismoaren amarrurik handienetariko bat da, Ana de Miguelek azaldu zuen bezala. Nire askatasunari dagokionez, muga kolektiboak daude, esate baterako gorputz organo bat ezin erostea. Pentsatu behar da non jarri nahi ditugun muga horiek gizarte modura. Haurduntza subrogatua emakumezkoen gorputzen alokairua muga horietariko bat izan liteke.

Haurduntza subrogatua erregulatzeko asmoak zerikusirik al du espainiar estatua laguntza bidezko ugalketan potentzia izatearekin?

Oraintxe bertan ugalketako turismoaren jomuga nagusia da. Tratamenduen % 40 inguru atzerritik datozen pertsonen jasotzen dituzte. Donazioa anonimoa da lege eta konpentsazio ekonomikoa du; horregatik, beste toki batzuetan baino eskaintza zabalagoa dago. Estatu mailan laguntza bidezko ugalketaren % 75-80 inguru sektore pribatuan egiten da; horregatik azaltzen da haurduntza subrogatua lege eta politikaren arloko agendan, dirua baliatzen duen industria delako. Horrek zuzeneko zerikusia du alderdi neoliberalak arautzeko duten nahiarekin. Ñabartu beharra dago haurduntza subrogatua ez dela laguntza bidezko teknika bat, baizik eta ugalketa gaitasuna emakumezko batzuegandik beste batzuegana transferitzea.

